



Axularren gerizapean

Kepa Altonaga

Upaingoia, 46

978-84-9172-307-3

2022. urtea - 192 or. - 13x19 cm


15,00 €

1925eko irailaren 17a. Axularren Eguna ospatzen da Saran. Hara bertaratu ziren «Eskual-Herriko idazle maitatuenak», bai Iparraldekoak –kasurako, Jean Barbier, J. Saint-Pierre *Anxuberro* eta J. Elizalde *Zerbitzari* elizgizonak, Jean Etxepare medikua eta Maddi Elizaga– zein Hegoaldekoak –A. Arzelus *Luzear*, F. Irigarai *Larreko*, A. Labaien, I. Lopez Mendizabal edo Migel Unamuno bilbotarra–. Axularren konjuruak elkarretaratu bide zituen.

Ehun urte joan diren arren, orduko Axularren Egunak badu gozo bat oraindik ilaundu ez dena, eta maite, gaurko egunean ere maite ditugu han batu zirenak.

Axularren gerizapean leitzean, irakurleak intrigazko kontakizun kilikor bat aurkituko du, ikosaedrikoa. Istorioaren une nagusiak atzekoz aurrera harildu dira: Sarako jaia 1925ean, Zornotzako bazkaria 1914ko urrian, 1921eko ekaineko idazle-bilkura Oiartzunen.

Liburuaren lerroetan zehar trantsitatzean deskubrituko dira mugarri horietako protagonista agerikoak –adibidez, Tene Mujika edo E. Bustintza *Kirikiño* – eta bai beste hainbat pertsonaia ere, ahanztiak eta ezkutukoak, Maurice Souberbielle medikua, esate baterako.



Kepa Altonaga
(Loiu, 1958)

Biologia ikasketak EHU. Zoogeografia, Zoologia, eta Biologiako Kontzeptuak eta Metodoa irakasten ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean. 1978tik aurrera Udako Euskal Unibertsitateko kidea da. UZEI, Elhuyar eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu izan du. CAF-Elhuyar Merezimendu Saria jaso zuen 2016 urtean euskarazko zientzia eta teknologiaren kulturaren gindako lanarengatik.

Idatzitako liburuen artean:

Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006), *Darwin geurean* (Juan Zelaia Saiakera Saria; Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* (Pamiela, 2011), *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015), *Patagoniara Hazparden barrena* (Euskadi Literatura Saria, saiakera arloan; Pamiela, 2017), *Duvoisin kapitainaren malura* (Pamiela, 2018) eta *Iridioaren mintzoa* (Pamiela, 2021).



PAMIELA
argitaletxea